

## Eibarko Klub Deportiboa / Eibarko Klub Deportibua

Club Deportivo Eibar euskaraz nola eman adosteko ahaleginean.

### Eztabaida zatika

- **Eibarko / Eibar**
  - 1 “Eibarko” erabiltzen da nagusiki azken 30 urteotan.
  - 2 Juan San Martinek “Eibarko” maiz zerabilen (gaztelera ere behin edo behin Club Deportivo **de** Eibar erabili zuen).
  - 3 “Eibar Klub Deportiboa” arrotza gertatzen da eta futbol taldearekin nahasmena areagotzen du.
  
- **Klub / Elkartea**
  - 1 “Kluba” maiz erabiltzen da Deportiboa izendatzeko.
  - 2 “Elkartea” izenarekin ez dago identifikaziorik.
  
- **Deportiboa / Deportibua:**
  - 1 Deportibua: Eibarren halaxe ahoskatzen da nagusiki.
  - 2 Deportiboa:
    - Idatzizkoa eta ahoskera bereizteko ohitura errotuta dago.
    - Idatzizko tradizioa: azken 30 urteotan idatziz halaxe jarri da nagusiki.
    - Egindako bidean aldaketak nahasmena lekarke orain.
    - Aldaketa egiteko arrazoi sendoak behar: aukera bat okerra eta bestea zuzena izatea adibidez. Alde horretatik biak maila berean.
    - “ua” ahoskera sortzen da “-o” bukatzen den izenari “a” artikulua ezartzean . Hortik osatzen den “oa” formak “ua” ahoskatzen dira Eibarren. Baina “-a” mugatzailea ez badago izenaren bukaera ez da “u”, jatorrizko “o” baizik. Beraz, artikulurik gabeko izena “Deportibo” litzateke beti.
    - Hori kontuan hartuta, deklinatzeko orduan akatsak egiteko arrisku gutxiago du “Deportiboa” formak. Ostera, “Deportibua” hautatuko balitz, “Deportiboko” beharko luke deklinatzerakoan, eta ez “Deportibuko”. “Deportibo” formak ez luke oker hori egiteko arriskurik.

Juan San Martin, *Antzinako Eibar* (1993)

- “Eibarko Club Deportivo-ko "Kezka" aldizkarian argitaratu nuen...”
- “Club Deportivo-ak egiten duen”
- “Eibarko Club Deportivo-ko Kezka (1976) aldizkarian ere argitaratu nuen”
- “1964-1966. urteetan Club Deportivo-ko
- “Eibarko Club Deportivo-ko Kezka deritzan aldizkarian”
- “Herriko Club Deportivo-aren "Kezka””

Gaztelera:

- Club Deportivo Eibar

Juan San Martin, *Miscelania. In Memoriam Indalecio Ojanguren Arrillaga (1887-1992)*

- Club Deportivo de Eibar

Non	"Eibarko Klub Deportiboa"	"Eibarko Klub Deportibua"	(Eibar) deportiboa	(Eibar) deportibua
Etakitto.eus	400	6	2050	47
Egoibarra.eus	84	4	193	4
Google	7920	6	618000	125